

IKUSMIRAN 10

Egoeraren azterketa

2022ko ekaina

10

Ikusmiran 10 | 2022ko ekaina

Egoeraren azterketa

Aurkibidea

1. SARRERA	5
2. AZTERKETAREN ONDORIO NAGUSIAK.....	5
• AURREIKUSPENAK BERRIKUSTEN, ESTRATEGIA BERRIKUSI GABE.....	7
• BURUJABETZA BEHAR DUGU, HEMEN POSIBLE EGITEKO	8
3. EUSKAL HERRIKO EREDU SOZIOEKONOMIKOAREN EZAUGARRIAK.....	9
EROSAHALMENA	9
• OINARRIZKO PRODUKTUAK IZUGARRI GARESTITU DIRA AZKEN HILABETEETAN	9
• 2008TIK LANGILERIA EROSAHALMENA GALTZEN	10
• PENTSIOEK IGOERA HANDIAGOA BEHAR DUTE EROSAHALMENARI EUTSI AHAL IZATEKO	12
BARNE PRODUKTU GORDINAREN BILAKAERA	13
• INDUSTRIAK IZAN DU ERREKUPERAZIO HANDIENA AZKEN URTEAN.....	15
• DESINDUSTRIALIZAZIOA ZERBITZUEN MESEDETAN.....	15
• ETXEKO ETA ZAINZA LANAK IKUSEZIN.....	16
• SOLDATAK PISUA GALTZEN KAPITALAREN MESEDETAN	16
• EUROPAKO HERRIALDEEN ARTEAN DESBERDINTASUNAK AGERIKOAK.....	17
• BERRIKUNTZA INBERTSIOA.....	19
LAN MERKATUA	20
• LAN ERREFORMAREN LEHEN ONDORIOAK	20
EKONOMIA EHUNA GALTZEN	23
HEGO EUSKAL HERRIKO PRESIO FISKALA, EUROPAKO BATAZ BESTEKOAREN OSO AZPITIK	27
INGURUMENA	28
• BEGIRADA OSATZEAREN GARRANTZIA	28
• AIREAREN KALITATEA, PROZESU INDUSTRIAL ETATIK SORTZEN DIREN GASEK KUTSATZEN DUTE BATIK BAT ..	31
• BEROTEGI EFektuaren ERANTZULE NAGUSIA ERREGAI FOSILEN KONBUSTIOTIK SORTURIKO CO2	32
GASTU MILITARRA GORA, EUROPAK MAXIMO HISTORIKOA.....	33
MIGRAZIOAK ETA PERTSONA ERREFUXIATUAK	35
• BIZTANLERIA MIGRATUA, URTEZ URTE GORA DOAN ERREALITATE ISILDUA.....	35
• ERREFUXIATUEN BABESA, ERABAKI POLITIKOEN MENPE	36

1. SARRERA

Oso presente izan dugu egoera aldakor eta ezegonkor baten aurrean gaudela 10. *Ikusmiran Egoeraren azterketa* egiterakoan. Era berean, gure egunerokoa baldintzatzen duten gertaera nagusiek, lehendik krisian dagoen sistemaren hutsuneak azaleratu zein azkartzen ari dela ere esan beharrean gaude.

2020 urteko krisi globalaren ondoren, ustezko “errekuperazio” ekonomikoan geundela, gatazka belikoak eta ezarritako zigorrak erregaien eta beste lehengai batzuen prezioen igoera handia eragin du, baita elikadurarako oinarritzko produktuen garestitzea ere. Honekin batera, larriagotu egin dira botila-lepoak eta hornidura-arazoak. Egoera honi, argindarraren eta gasaren fakturaren gorakada handiari gehitu behar zaizkio. Beraz, Mendebaldeak Errusiari ezarritako neurriek ere eragin dute krisia (ez bakarrik gerrak) eta krisiaren ondorioek beti eragiten diote gutxien dugunoi. Zentzu horretan, gerra inperialistak, forma ekonomikoan ere, herritarren bizitza kaltetzen duela ondorioztatu dugu.

Testuinguru sozioekonomikoaren ezaugarri nagusia familien erosahaltenaren galera progresiboa bilakatu da. Hori dela eta, Ikusmiran honetan aztergai izan dugu KPlaren igoerak, soldata zein pentsioen eguneratzeekin alderatuz, nola eragiten duen langile klasearen erosahaltenaren galeran, langileria pobretuz. Era berean, oinarritzko elikagai zein bestelako gaien garestitzeak, egunerokoan zertan eragiten digun aztertu nahi izan dugu, diru-sarrera baxuenak zein altuenak dituztenen erosketa poltsak alderatuz.

Testuinguru sozioekonomikoak eraginda eta hartzen diren (edo hartzen ez diren) erabaki politikoen ondorioz, HEHko Barne Produktu Gordinaren bilakaera eta bere osaera aztertu ditugu, EH-ko eredu sozioekonomikoaren ezaugarrietan sakontzeko asmoz.

BPG, ordea, ez da herrialde baten garapena neurtzeko indize bakarra ezta osoena ere. Horregatik, ikusmira zabaldu nahi izan dugu, produkzio bideetatik sortzen den aberastasuna neurtzeaz gain, ingurumena edota ongizatea aztergai dituzten bestelako indizeak aztertuz. Gure herria datu ofizialetatik kanpo dagoenez, ezin izan dugu EH aztertu indize hauen arabera, baina bide bat zabaldu nahi izan dugu.

Martxoan sartu dira indarrean Espainiako Gobernuak onarturiko lan erreformaren azken neurriak. Oraindik orain gehiegizko behin-behinekotasuna zuzentzeko helburuari dagokionean izan duen eragina baloratzeko goiz bada ere, hainbat datu landu ditugu, hala nola behin behineko kontratuak ordezkatzeko aldiakako kontratuen igoera. Lan merkatuaren azterketarekin jarraituz, langabezia tasa edota soldatak ere hartu ditugu hizpide.

Azterketa lan honetan, gastu militarari ere tartea eskaini nahi izan diogu. Izan ere, mundu mailako gastu militarra inoizko altuena da eta hori mugarrira izan daiteke diru publikoaren inbertsioa zertara bideratu nahi den, lehenasunez, ezagutzeko. Bestelako eremuetan gastatzen ez den dirua eskubideak bermatzeko erabiliko ez dela ulertuz.

2. AZTERKETAREN ONDORIO NAGUSIAK

Eskuartean dugun Ikusmiran honetan EH-ren egungo ezaugarri sozioekonomikoak aztertu ditugu eta sistema kapitalistaren krisi estrukturalaren ondorioak gurean ere erreproduzitzen dira, modu argian. **Langile klasearentzat zein naturarentzat** jasanezina den ereduak da kapitalismoa, bizitza eta kapitalaren arteko etengabeko gatazkan.

2008. urtetik hona ezagutu ditugun krisiek ezaugarri espezifikoak izan badituzte ere (finantza krisia, eredu globalistaren kate-produkzioaren krisia edota lehia gerra inperialistaren eremuan lehiatzearen ondorioz sortzen den krisia), logika berean kokatzen dira; izan ere, kapitala metatzen jarraitzeko kapitalismoak berezkoak dituen ezaugarriak krisia eragin dute eta krisitik ateratzeko ustezko irtenbideek langile klasea gehiago pobretu zein prekarizatzen duen ereduak sakondu du.

2008an finantza krisia lehertu ondoren, aitzakia bilatu zuten eskubide eta diru-sarrerak murrizteko eta lan eta pentsio erreformak inposatzeko. Lehendik aski garatu gabe zauden zerbitzu publikoak eraisteko, pribatizazio politikak sustatzeko. Horrekin guztiarekin batera, zaintza lanen aitortza eta berrantolaketa ezak bizitzaren prekarizazio osoari bidea zabaltu zion. Kapitala neurrigabe metatzearen ondorioz, enpresa eta banka handia diru publikoz erreskatatu ziren, sistema erreproduzitzen jarraitzeko. Garaian harturiko erabakiek gaur egungo egoera ahalbideratu dute:

- Industriaren pisua EH-an galtzen ari da (2008an industriaren pisua BPG-ean %25,91 bazen, 2021ean %23,19ra jaitsi zen) eta zerbitzuetan oinarrituriko ereduak zabaltzen, langileon lan baldintzak okertzeko erraztasun.
- Azken hamarkadan ekonomia ehunaren %13,19 galdu dugu. Establezimendu handiak (200 langile edo gehiago) igo eta txikiak itxi dira; merkatua multinazional handien esku utziz.
- Langileen pobretze prozesuak ez du etenik:
 - Langile eta pentsionistak pobretzen ari dira, erosahalmena nabarmen galtzen. KPI-aren etengabeko igoera, egoera bideratzeko bide bezala, ez da jasangaitza langileontzat, soldatak zein pentsioak tamaina berean igotzen ez badira. Azken 11 urteetan, langileriak 6.165€-ko galera izan du.
 - Langabezia tasa estrukturala bilakatu da, apirillean 124.000 langabetu zeuden Hego Euskal Herrian. Bestalde, 2020an langabetuen %40,30 epe luzeko langabetuak baziren (urte bete edo gehiago lan bila zebiltzanak), 2022an %53,86ra igo da.

2020an mundu eta sistema globalistan hedatu zen pandemia, eta harekin batera, beste krisi ekonomiko bat. Ekonomikoki ezarrita dagoen sistemak ez du oinari sendorik eta, ondorioz, erraz zabaltzen den gaixotasun batek mundua kolokan jartzen du. Ez da ausazko gertaera, sistema ekonomiko kapitalistaren ondorio zuzena baizik. Beste krisi bat, baina ez bestelako irtenbiderik, enpresa handiei funts europarren bidez diru publikoaren transferentzia egitea baino. Krisi haren ondorioak gaur egun ere pairatzen ari gara: prekarizazioaren zabalpena; energia prezioen gorakada eta bere eragina bestelako gaien prezioetan, industriaren funtzionamenduan zein pertsonen bizitzatan; distribuzio kate-globaletan lehengai zein mikrotxipen eskasia edota enpleguan ezartzen ari diren mehatxua. Murrizketak beharrean, erreforma berriak etorri dira. Trukean, kapitalak aberastasuna metatzen jarraitzeko, krisiari ustezko irtenbidea eman nahi zioten Europako Funtsak iritsi ez badira ere.

- Gehien duenari, ordea, krisiak ez dio berdin eragiten. Aberastasunaren banaketa orekatua bermatzeko, ez da neurri zuzentzailerik planteatu. Kontrakoa. Izan ere, HEH-an administrazio publiko guztien (hiru erakunde-mailen eta Gizarte Segurantzaren batura) presio fiskala Europar Batasuneko batz bestekoaren (Eurogunea 19 %40,5 eta EU27 %40,2) oso azpitik dago (EAE %32,7 eta Nafarroa Garaia %30,9).
- KPI-ak 2021ean azken urteetako igoerarik altuena izan bazuen (%6,4 EAE-n eta %6,6 NG-an), 2022ko martxoan KPI-aren urte arteko igoera %9,8-ra iritsi zen, herritarrok gure poltsikoetan eragin handiagoa izanik.
- Prezio-igoera handiena oinarritzekoak diren ondasun eta zerbitzuetan jazo dira, diru-sarrera gutxien dituzten etxeetako erosketa-saskian pisu handiena dutenetan. Zehazki, 2020an etxe xumeen % 20k (gastu txikiak dutenak) aurrekontuaren % 66 baino gehiago erabili zuten etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaia eta elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak gastatzeko. Etxekoen unitate erosoaren % 20k (gastu handienak dutenak), berriz, aurrekontuaren % 44 inguru bideratzen dute horrelako gastuetara.
- Zaintza krisia estrukturala dela, agerian. Herritarren beharrak asegabe eta instituzio publikoetatik erantzun eraginkorrik ezean, sortzen diren beharrak emakumeon bizkar edota beste emakume bat "esplotatuz", askotan migratu eta arrazializatuak, sostengatzen dira. Modu honetan, zaintza-kate globalak birstortzen dira, jatorrizko herrialdean zaintza-hutsuneak eraginez.

Horretan genbiltzan, 2022an kapitalismoak berriro ere krisi berria eragin duenean gerra inperialistarekin. Kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka bizi dugu denbora errealean. Planetaren muga biofisikoak ezin tenkatuago daude eta pertsona xumeen esplotazioa eta bazterketa muturreko abiaduran doa. Potentzien arteko enfrentamendua gerra bilakatu da, mundu mailako hegemonia, energia iturrien eta lehengaien kontrola dituzte xede. Oso eszeptikoak ginen kapitalak eta estatuak klima larrialdiari eta trantsizio azkar eta sakon baten beharri akordioaren bidetik helduko ote zioten. Bistan da Kapitalismoaren sen suntsitzailari egiten diotela men, militarismoari eta faxismoari bultzada eman diote mundu osoan.

Esan genezake bi krisi gainjarri direla, baina gerra inperialistaren logikak erabaki politiko berriak hartzea ekarriko ditu, lehentasunak birformulatuz. Ezagutzen ez ditugun lehentasun berriak Europa AEB-ekin lerrokatzetik etorriko dira, eredu kapitalista birsortu edota indartzeko. Krisiari irtenbidea emateko langileria pobretzen duten erreformak aplikatzen ari ziren bitartean etorri da krisi berria; lehentasunak aldatuko badira ere, eredu kapitalistaren norabidea berbera izango da eta pertsonak zein natura kapitala metatzen jarraitzeko bitartekoak izaten jarraituko dugu.

- Lehentasunen artean kapitalismoa babesteko erantzun militarra bermatzea, mundu mailako gastu militarrek inoizko diru-kopuru handiena suposatuta baitu. Espainiar estatuak 2021ean BPG-aren %1,4a eta frantziar estatuak 2020an BPG-aren %1,9a gastu militarra bideratu zituzten..
- Ekologikoki iraunkorra ez den ereduak natura ustiatzen jarraitzen du etekin ekonomikoak lortzeko, Berotegi Eftukoko Gasen isurketa sortzen dituen prozesu kolektibo nagusien gaineko esku-hartze publikorik gabe edota sortzen den azterna materiala kontutan hartu gabe. HEHan industriak, energia sektoreak zein garraioak sortzen dituzte BEG isurketa gehien (EAEn garraioak %35, energia sektoreak %33 eta industriak %18; NGan industriak %30,01, garraioak %23,27 eta energia sektoreak %12,1).
- 2020.urtean mundu osoko biztanleriaren %3,6a migratua zen. Izan ere, eredu globalista honen ondorioz, hartzen diren erabaki politikoek planetan osoan eragina dute. Zentzu honetan, 2022an lehen hiruhilekoan %210,53 errefuxiatu gehiago artatu zituen Irungo Harrera Sareak, 2021.urteko lehen hiruhilekoarekin alderatuta.

Bizitzak arrakalatzten eta planeta suntsitzen duen sistema kapitalista, heteropatriarkal eta ekoizda krisian dago kapitala metatzen jarraitzeko bere ahalegin neurrigabea, bizitza eta kapitalaren arteko gatazka tenkatuz.

Langileok hautatu/ erabaki ez dugun eredu kapitalistaren zutabeak eror ez daitezten, sistema bera erreproduzitzeko aterabideak bilatzen ditu kapitalak. Konponbiderik gabeko eskenatokiak diseinatzen dira, arazoaren oinarrietara jo ordez, langileon kaltetan eraikiak diren politikak sustatuz. Beti ere, kapitalismoak iraun dezan eta krisi berri batetik, indartuta ateratzeko. Krisi etengabea dagoena, hortaz, sistema kapitalista da.

AURREIKUSPENAK BERRIKUSTEN, ESTRATEGIA BERRIKUSI GABE

Nazioarteko azterketa-zerbitzu eta erakunde guztiak aurreikuspen ekonomikoak berrikusten ari dira, inbasioaren eragina eta haren ondorioak kokatzeko.

Aldagai ekonomiko balioko bilakaerarekiko ziurgabetasun-maila handia da, eta, neurri handi batean, gatazka armatuaren iraupenaren, hartzen duen dimentsioaren, bukatuko den moduen eta utziko dituen ondorioen arabera izango da. Jakina, erabakigarriak izango dira, halaber, gobernuak eta erakunde politikoek arlo ekonomikoan, fiskalean eta sozialean hartutako erantzun-neurriak.

Produktu energetikoen eta lehengaien egungo garestitze-prozesu bortitzak eskenatoki arriskutsu baten aurrean kokatzen gaitu, joan den mendeko hirurogeita hamarrekoko hamarkadako krisi energetikoak eragindakoaren antzekoan.

Ziurgabetasun handiko egoera baten aurrean egonik eta aldagai ekonomikoak aldakorrek direla ulertuz, jarraian Eusko Jaurlaritzak marxoan eta Funcas-ek 2022 urteko maiatzan egindako aurreikuspenak dituzue (eguneratutako azken datuak dira):

EUSKO JAURLARITZAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK 2022 URTERAKO		
	2022ko martxoko aurreikuspenak	2021eko abenduko aurreikuspenak
BPG	%4,5	%6,7
Langabezia-tasa	%9,5	%9,2

ESTATU ESPAINIARREKO AURREIKUSPEN MAKROEKONOMIKOAK, 2022 URTERAKO		
	2022ko maiatzako aurreikuspenak	2022ko urtarrileko aurreikuspenak
BPG	%4,3	%5,6
Langabezia-tasa	%13,7	%14,2
Inflazioa *	%6,9	%3,5
* KPI-aren bariazioa urteko batz bestekoan		

Iturria: FUNCAS

Inflazioak egunerokoan eragiten ari digu, epe motzean erosahamena galtzen dugulako. Epe luzean duen eragina, ordea, ezin ahaztu; izan ere, aurrezki gaitasunean ere eragin negatiboa baitu eta etorkizuneko bizi egitasmoa kolokan jarritz. Bada inflazioari aurre egiteko etorriko diren neurrien artean, interes tasen igoera kokatzen da. Langileok interes tasen igoeraren ondorioak modu bikoitzean pairatuko ditugu, herri klasearen baldintza estrukturalak okertuz batetik, zuzenean, kontratatuak ditugun mailegu edota aurrezkietan eta, bestetik, enpresetan interes tasak igotzearen ondorioz, hauen inbertsio gaitasuna kaltetzen da eta pentsa dezakegu soldatak zein enplegua egongo direla jo puntuan.

BURUJABETZA BEHAR DUGU, HEMEN POSIBLE EGITEKO

Alternatiba ez da sistema kapitalista erreformatzetik etorriko, kapitalismoak ez baitu erdibiderik, nahiz eta bidean ezberdinen artean egin beharko dugun. Sistema bera da eraldatu beharrekoa, pertsonak zein natura erdigunean jarritz. Egunez egun, norbanako gisa, elikatu behar dugun prozesua izango bada ere, aldaketak globala izan behar du, prozesu kolektiboek gidatuta, non langileon parte hartze aktiboa izateak norabidea baldintzatuko duen. Kapitalismoan langileon ez dugu etorkizunik!

Egoerak egiturazko aldaketak behar ditu, ez estatuetakoko gobernuak eta gobernu autonomikoak planteatzen ari diren adabakiak. Mahai gaineratu diren neurriak ez dira nahikoak. Laguntza horietako askok gastu publikoa handituko dute, eta birbanaketa-politika egokirik gabe, ez da zerbitzu publikoen garapen egokira bideratuko, ezta gizarte-babeseko politika duinak bermatuko ere.

Estrategia eraldatzailea eta independentista praktikara eraman nahi dugu, Estatuetan posible ez den hori, Euskal Herrian posible eginez, Lan Harremanetako eta Babes Sozialeko Euskal Esparrua (LHBSEE) eratzeko proposamenak eginez, Euskal Herriko Lan Kodea eta Gizarte Segurantzako Legea gauzatu daitezen bidea egiteko ekimenak jorratuz, enplegu duinerako sektorearteko akordioa, esaterako.

Langile guztientzako sindikalismoa aldarrikatzen dugu, eta horrek ezinbestean sindikalismo feminista eta antirrazista garatzea esan nahi du. Enplegua, zaintza lanak eta ondasuna, banaketa hirukoitzaren alde eginez, zaintza eta lana banatu eta duinduz, aberastasunaren birbanaketa bultzatuz. Lan eta bizi baldintzen aldeko borroka burujabetzaren aldeko aktiboa bilakatuko dugu, pedagogia independentista eginez.


3. EUSKAL HERRIKO EREDU SOZIOEKONOMIKOAREN EZAUGARRIAK

EROSAHALMENA

Azken hilabeteetan langileok arazo gehiago ditugu hilabete bukaerara iristeko. Argindar, gas, bestelako erregai zein oinarrizko produktuen garestitzea azken urte luzeetan ezaguturiko handiena izan da eta oraingoan ere, kolektibo kalteberak dira egoera modu gordinago batean jasaten ari direnak. Errusiak Ukraina inbaditu izanak edota Errusiari ezarri zaizkion isunek joera azkartu badute ere, lehenagotik bizitzen ari ginen prezioen garestitzea. Erregai fosilen agortzea gero eta nabarmenagoa den honetan, erabaki espekulatiboen ondoriozko argindar eta gasaren igoera ikaragarria eta gero hasiak ginen bestelako produktuen prezioen igoera nozitzen.

OINARRIZKO PRODUKTUAK IZUGARRI GARESTITU DIRA AZKEN HILABETEETAN

2021ean Kontsumo Prezioen Indizeak (KPI) azken urte luzeetan izaniko igoerarik handiena izan zuen, %6,5 inguru (%6,4 Euskal Autonomia Erkidegoan -EAE- eta %6,6 Nafarroa Garaia -NG-). 2022ko martxoan %9,8an itxi zen KPIa, eta Apirileko behin-behineko datuen arabera %8,4koa izan zen aipatu hilabeteetan. Urte bukaerako aurreikuspenek ziurgabetasunez beteriko agertoki bat marrazten dute.



KPI-aren igoera orokorrak horiek izanik, argindar, gas, bestelako erregai eta oinarrizko produktuen garestitzea are eta handiagoa izaten ari da. Martxoan urte arteko KPIaren igoera orokorra %9,8koa izanik, herritarrok, geure poltsikoan igoera handiagoa nabarituko dugu (Espainiako Estatuko datuak):

KPIaren osagai inflazionistenak hiru taldetan sailkatzen dira: etxebizitza, garraioa eta elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak. Beraz, prezio-igoera handienak oinarrizkoak diren ondasun eta zerbitzuetan gertatzen ari dira, hau da, diru-sarrera gutxien dituzten etxeetako erosketa-saskian pisu handiena dutenetan.

Zehazki, 2020an etxe xumeenen % 20k (gastu txikiena dutenek) aurrekontuaren % 66 baino gehiago erabili zuten etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaiak eta elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak gastatzeko. Etxeko unitate erosoenen % 20k (gastu handiena dutenek), berriz, aurrekontuaren % 44 inguru bideratzen dute horrelako gastuetara.

2022 MARTXOKO URTE ARTEKO IGOERA

Elikagaiak	%
Ogia	6,5
Arrautzak	11,0
Olio eta grasak	32,1
Ardikia	10,1
Arrain freskoa edo hoztua	11,0
Arroza	10,5
Irinak eta bestelako zerealak	14,3
Pasta	21,4
Bestelakoak	
Argindarra	107,8
Gasa	17,3
Ibilgailuentzat erregaiak	40,2

Iturria: INE

Beraz, oinarrizkoak diren ondasun eta zerbitzuen garestitzea kalte handiagoa ari da eragiten bizi-unitate zaurgarrien artean.

ETXEKO BATEZ BESTEKO GASTUA, PERTSONAKO BATEZ BESTEKO GASTUA ETA GASTUAREN BANAKETA


	2.020					
	DENERA	KINTIL 1	2. KINTILA	3. KINTILA	4. KINTILA	5. KINTILA
Orokorra	100	100	100	100	100	100
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	16,96	22,1	21,45	19,52	16,73	12,52
Tabakoa eta edari alkoholduak	1,89	1,93	2,07	2,13	1,99	1,62
Arropak eta oinetakoak	3,74	2,63	3,07	3,63	4,02	4,2
Etxebizitza, ura, argindarra, gasa eta bestelako erregaiak	35,64	44,04	39,72	36,99	34,45	31,68
Altzariak, etxeko gaiak eta etxeko mantentze lan arruntak	4,34	3,14	3,63	3,83	4,4	5,18
Osasuna	3,71	2,48	3,07	3,37	4,13	4,21
Garraioa	10,16	4,96	6,49	8,04	9,69	14,51
Komunikazioa	3,48	5,21	4,47	3,84	3,33	2,5
Aisia eta kultura	4,17	2,27	3,14	3,75	4,47	5,15
Hezkuntza	1,62	0,83	1,05	1,41	1,82	2,06
Jatetxe eta hotelak	6,49	3,19	4,19	5,69	7,26	8,27
Bestelako ondasun eta zerbitzuak	7,81	7,21	7,65	7,79	7,71	8,12

Iturria: INE

2008TIK LANGILERIA EROSAHALMENA GALTZEN**SOLDATEN IGOERA KPIAREN AZPITIK**

Soldatak azken hamarkadan gutxienez KPI-aren azpitik eguneratu dira, azken urtean zertxobait errekuperatu bada ere batez besteko soldatei dagokienean. Beste kolektibo batzuek ordea, zaurgarrienek (gazteek, migratuek, soldata maila baxuenek...) erosahalmena galtzen jarraitzen zuten 2019an (Ikus Ikusmiran 08 Langileon lan eta bizi baldintzak 2021 Iraila).

SOLDATAREN BILAKAERA HEGO EHN




Iturria: Geuk egina Espainiako Estatuko Estatistika Institutuaren (INE) datuekin.

2019 arteko datuak horiek izanik, zer ari da gertatzen gaur egun langileriaren soldatarekin? Galdera hori erantzun ahal izateko datu desberdinak hartu ditugu kontutan:

- 2020, 2021 eta 2022ko soldata igoerak. 2020 eta 2021ean soldata igoera aurreko urteko KPIa baino altuagoa izan zen laneko borroka eta gatazken ondorioz. 2022an ordea oraingoz iazko KPIaren azpiko soldata igoerak daude adosturik langileentzat.

SOLDATA IGOERA ETA KPIA. HEGO EH (%)



Iturria: INE eta Espainiako Estatuko Lan eta Ekonomia Sozial Ministerioa

- Soldata igoera horiek ordea ez dira langile guztientzat izan. Izan ere, erregimen orokorrean dauden langileen %30,71k soilik izan zuen soldata igoera 2020an, 2021ean %26,04k eta 2022ean %10,27k. Beraz, langileriaren zati handienak ez du inolako soldata igoerarik izan azken 3 urteetan.
- Hitzarmenen babesik gabe dago langileriaren kopuru esanguratsu bat. Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) arabera,

EAE 2020an 55000 langile inguruk inoiz ez ditu arautu lan hitzarmenen bidez lan baldintzak (soldatepeko langileen %6,8 inguru). Horietatik %75 emakumea da.

- Hego Euskal Herrian 182000 dira etxeko lan ez ordaindura eskusiboki dedikatzen diren langileak. Gehien-gehienak emakumeak dira eta ez dute inolako prestazio edota soldatarik jasotzen. Beraz, euren kabuz ez dute erosahalmenik.

PENTSIOEK IGOERA HANDIAGOA BEHAR DUTE EROSAHALMENARI EUTSI AHAL IZATEKO

Pentsiodunek ere erosahalmena galdu dute nabarmen azken urteetan. 2013an Raxoiren gobernuak onarturiko erreformak pentsioen zenbatekoa gutxitzeko neurrien artean, igoera KPlarekin deslotzea onartu zuen. Azken pentsio erreformak aurreko urteko KPlen batezbestekoa hartu du erreferentziaz, eta 2021ean, abenduko KPlaren oso azpitik geratu da aipatu batezbestekoa. Aurtengo igoera, ordea, bestelakoa izango dela aurreikus daiteke. Datozen hilabeteetan KPlak beherantz egingo balu, batezbesteko KPla abendukoa baino altuagoa izan liteke. Dagoeneko ordea, ahots batzuk hasiak dira batezbesteko KPlaren araberrako igoera hori jasangaitza izango dela ohartarazten, zeharka, beste modu bateko igoera baxuagoak proposatuz.


Hurrengo grafikoan azken hamar urteetan pentsioek izan duten igoera azaltzen da KPlarekin alderatuta. Urte batzuetan KPlaren gainetik igo bada, gehienetan azpitik geratu dira pentsioak.



Honako grafiko hau ulergarriagoa da pentsioen erosahalmen galera ikusi ahal izateko. 2011tik pentsioek izan duten igoera metatua jasotzen du batetik, eta bestetik KPlaren bilakaera metatua. Nabarmena da pentsioek izan duten erosahalmenaren galera.

Espainiako zein Frantziako Estatuan onarturiko pentsioen erreformek pentsio sistema ahultzea eta pentsioen zenbatekoa gutxitzea izan dute helburu. Pentsioen eguneraketaz gain, bestelako hainbat neurriren ondorioz pentsioak murrizten ari dira. Eta oraingoan ere pentsio apalenak dituztenak izango dira kaltetu nagusienak.

BARNE PRODUKTU GORDINAREN BILAKAERA



Barne Produktu Gordina (BPG) lurralde batean aldi jakin batean ekoizten diren ondasun, zerbitzu eta inbertsio guztien balioaren batura da; gaur egun, herrialde baten bilakaera ekonomikoa neurtzeko modurik erabiliena.

Sistema kapitalistan, ekonomiaren bilakaera positiboa ezinbesteko hazkunde mugagabearekin lotu da. Eredu hau ordea ez da jasangarria, ez ekologikoki eta ezta sozialki ere. BPGren bilakaera jendarte baten ongizatearen isla gisa ulertzen den arren, errealitatea horrela izatetik urrun dago. BPGren hazkundeak, mugatuak diren baliabide naturalen ustiaketa dakar eta gure planetaren biziraupena bera jartzen du arriskuan. Hori gutxi balitz, hazkunde faseak herritarren ongizate mailaren hobekuntzarik ez dakarrela erakutsi digute azken urteek, eta hazkunde horrek sorturiko aberastasuna gutxi batzuen eskuetan metatzen joan dela (Ikus "Euskal Herriko Langileriaren Lan eta Bizi Baldintzak" 2021eko Azaroko Ikusmiran 08 txostena). Era berean, BPGk egun balio ekonomikoa duten sektoreak soilik neurtzen ditu, bizitza sostengatzeko hain beharrezkoak diren zaintza eta etxeko lanak albo batera utziz.


Edonola ere, aztertu beharreko adierazlea dugu. Izan ere, ekonomiaren egitura eta bere bilakaera ulertzeko elementuak eskaintzen dizkigu. BPGren desahazkunde fase batean patronala kaleratzeak, soldata jaitsierak eta hainbat eskubide urraketa planteatu eta inposatzen saiatuko da orain arteko jokatzeko moduari erreparatzen badiogu. Ondorioz, ordezkatu behar litzatekeen adierazlea izanik ere, egun ezin uka dezakegu BPGren bilakaerak langileongan duen eragina.

2022a pandemia atzean utzi eta "errekuperazio" urte gisa irudikatzen zuten ekonomilari gehienek. Errusia Ukrainian indarrez sartu izanaren ondorioz bertako langileria bizitzen ari den egoera latzaz gain, mundu osoan nabaritutako dira ondorio ekonomikoak, baita prezioen igoera neurrigabeak ere. Espekulazioaren ondorioz argindarra eta bestelako produktuak izaniko prezio igoerak azkartze bat izan du inbasioaren ondoren, eta dagoeneko, elikagai krisia oso nabaria ari da izaten hainbat herrialdeetan, Afrikako errenta baxu eta ertaineko herrialdeetan batez ere.

Edonola ere, egoera honek diru-sarrera baxuenak dituzten mundu osoko bizi-unitateetan izango du eragin handiena.

Nabaria da 2020an proportzionalki hazkunde negatiboa izan zuten herrialdeek 2021ean hazkunde handiagoa izan dutela. Horixe bera gertatu zaio Hego Euskal Herriari. Hazkunde maila berdintsuetan kokaturiko beste herrialdeak baino erorketa handiagoa izan zuen 2020an BPGk, eta 2021eko hazkunde batez bestearen goitik geratu da. Aurreikuspenei dagokienez, Hego Euskal Herriko datuak besteekin ez dira hain alderagarriak iturri desberdinak erabiliz lorturiko datua baitugu eskuartean. Edonola ere, batez bestekoaren goitik egongo litzateke BPGren igoera, eta Espainiako Estatukoaren azpitik.

BPG: URTE ARTEKO BILAKAERA



Iturria: Eustat eta Nastat

BPG URTE ARTEKO BILAKAERA: HEGO EH ETA MUNDUA

	2.010	2.011	2.012	2.013	2.014	2.015	2.016	2.017	2.018	2.019	2.020	2.021	2022 (a)	2023 (a)
HEH	1,76	0,86	-1,96	-1,34	2,09	3,33	3,62	3,67	4,11	3,60	-9,51	8,19	4,61	-
EB- 27	2,2	1,8	-0,7	0,0	1,6	2,3	2,0	2,8	2,1	1,8	-5,9	5,3	2,8	2,3
MUNDUA	4,50	3,34	2,67	2,85	3,12	3,17	2,83	3,39	3,27	2,60	-3,29	6,10	3,6	3,6


Espainiako Estatua	0,2	-0,8	-3,0	-1,4	1,4	3,8	3,0	3,0	2,3	2,1	-10,8	5,1	4,8	3,3
Frantziako Estatua	1,9	2,2	0,3	0,6	1,0	1,1	1,1	2,3	1,9	1,8	-7,9	7,0	2,9	1,4
Erresuma Batua	2,1	1,3	1,4	2,2	2,9	2,4	1,7	1,7	1,3	1,4	-9,4	7,4	3,7	1,2
Alemania	4,2	3,9	0,4	0,4	2,2	1,5	2,2	2,7	1,1	1,1	-4,6	2,8	2,1	2,7
Txina	10,6	9,6	7,9	7,8	7,4	7,0	6,8	6,9	6,8	6,0	2,3	8,1	4,4	5,1
AEB	2,6	1,6	2,3	1,8	2,5	3,1	1,7	2,3	3,0	2,2	-3,4	5,7	3,7	2,3
Errusia	4,5	4,3	4,0	1,8	0,7	-2,0	0,2	1,8	2,8	2,0	-3,0	-	-8,5	-2,3

Iturria: Eustat, Nastat, Eurostat, Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtza (NDF)

(a) NDF-ren aurreikuspenak 2022ko Apirilean. Hego Euskal Herriaren kasuan Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren aurreikuspenak

INDUSTRIAK IZAN DU ERREKUPERAZIO HANDIENA AZKEN URTEAN

Hurrengo grafikoan Hego Euskal Herrian BPGk sektoreka izan duen bilakaera aztertu dugu. 2020an sektore guztiek jasan zuten izugarritzko kolpea, eta 2021ean ere sektore guztiek izan dute hazkundea. Hala ere, sektoreka desberdintasun handiak nabari dira. Industria izan bazen hazkunde negatibo handiena izaniko sektorea, 2021ean gehien errekupeatu dena izan da. 2020an gehien galdu zuen hurrengo sektorea zerbitzuak bada, 2021an gehien errekupeatu zen hurrena dugu. Eta gauza bera gertatzen da eraikuntzarekin. Lehen sektorea da joera hori apurtzen duena, izan ere, 2020an %-9,63ko jaitsiera izan bazuen, 2021ean oso hazkunde txikia izan du, %1,39koa. BPGri dagokionez, pandemia aurreko egoerara itzultzeko urrun dago oraindik.




DESINDUSTRIALIZAZIOA ZERBITZUEN MESEDETAN

Eraikuntzak eta industriak ekonomian duten pisua nabarmen ari da galtzen azken urteetan. Ez da Hego Euskal Herrian soilik gertatzen den fenomeno, Europa osoari dagokiona baizik. Manufaktura industriaren zati garrantzitsu bat eskulan merkeagoa duten herrialdeetara, Asiara batik bat eraman izanaren ondorioz gertatu da nagusiki. Zerbitzuetan oinarrituriko ekonomiak langileen lan baldintzen okertzean eragiten du batetik. Bestetik, beste herrialdeekiko dependentziaren handitzea.

Dependentzia hori nabarmena izaten ari da hainbat sektoretan, microchip-en eskasiak eraginik batik bat. Suezko kanala itxirik egon zenean ere bertako industriak asko nabaritu zuen Asiatik zetozen produktuen eskasia. Orain, Txinako konfinamendu berriek ere, hornidura-kateak arriskuan jar ditzakete.

Bestetik, lehen sektorearen pisu eskasa aipatuko genuke, 2021ean Hego Euskal Herriko BPGren %1,15 soilik. Azken hamarkadan zertxobait hazi bada ere, elikadura-burujabetza izatetik oso urrun gaude, eta bertako biztanleriari elikagai nahikoak eskaintzeko beste herrialdeekiko dugun dependentzia ukaezina da.

SEKTOREEN PORTZENTAIA BPGean HEGO EHN (%, 2008-2021)



ETXEKO ETA ZAINZA LANAK IKUSEZIN

BPGean ez dute inongo islarik eremu pribatuan doan egiten diren zaintza eta etxeko lanek bizitza sostengatzen duten arren. Baina badira hurbilpen bat egiteko saiakerak. Euskal Herriari dagokionez, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaian ez dugu horrelako azterketarik, bai ordea EAEn. Eustat-ek, bost urtez behin egiten dituen denboraren aurrekontu inkesta oinarri harturik "etxeko lanen kontu satelitea" publikatzen du.

2021ean buruturiko egoeraren azterketan (ikus Ikusmiran 07 egoeraren azterketa, 2021eko Maiatza) sakon aztertu genituen 2018an Eustatek publikaturiko datuak EAE-rako. Orduko ondorio batzuk ekarri ditugu hona laburpen moduan.

- EAE-n BPGren %27,7 lirake etxeko lanak 2018an, industriak BPGean duen pisua baino handiagoa lukete.
- Gero eta ordaindu gabeko etxeko eta zaintza lan gutxiago egiten dira, edo behintzat, denbora gutxiago eskaintzen die lan horri EAE-ko biztanleriak. 2008an batez beste 16 ordu eta 48 minutu eskaintzen baziren lan horiei, 2018an 14 ordu.
- Emakumeek oraindik gizonezkoen denbora bikoitza eskaintzen die etxeko eta zaintza lanei. Batez beste 18 ordu eta 5 minutu emakumeek, gizonezkoek 9 ordu eta 27 minutu.
- Etxeko lanak burutzen dituzten pertsonen artean, emakumeak dira gehiengo. Inkesta eginiko emakumeen %96,40k etxeko lanak burutzen ditu. Gizonezkoen kasuan %88,30 da ehuneko hori.

SOLDATAK PISUA GALTZEN KAPITALAREN MESEDETAN

Soldatapeko langileen ordainsariak BPGean duten pisua galdu dute 2010etik, jendartean hazten ari diren arrakalen erakusgarri, kapital errenten eta laneko errenten artean kasu honetan. Gainera, per capita BPG berdintsua duten herrialdeekin alderatuz, beste herrialdeetan joera soldaten pisua mantentzea izan dela ikusten dugu.


2020an soldatek errekupeazio garrantzitsu bat izan dute. Hala eta guztiz ere, tentuz hartu beharreko datua dugu honakoa, izan ere 2020an Hego Euskal Herriko BPGk %9,51ko galera izan zuen, eta soldatek ez zuten galera bera izan, kasu honetan koiunturalki proportzioa igoz. 2021eko datuak izateko EAE-ko datuen faltan, urte horretan aztertutako herrialde guztietan soldaten proportzioaren jaitsiera bat gertatu dela ikusten dugu. Datozen urteek erakutsiko digute aldaketa koiuntural baten aurrean edo joera aldaketa baten aurrean gauden, baina tamalez, adierazle guztiek 2020an gertaturikoa BPGren jaitsiera koiuntura batean jazo dela erakusten digute.

SOLDATEN PISUA BPGEAN: HEGO EH ETA EUROPA

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
EB-27	%47,27	%46,98	%47,30	%47,29	%47,18	%46,77	%46,95	%46,96	%47,31	%47,41	%48,68	%47,77
Alemania	%50,44	%50,11	%51,12	%51,37	%51,30	%51,62	%51,77	%51,82	%52,59	%53,34	%54,87	%53,69
Irlanda	%41,61	%39,98	%39,48	%39,14	%37,44	%29,46	%30,54	%29,73	%28,77	%28,19	%27,14	%25,96
Espainiako Estatuak	%49,11	%48,26	%46,69	%45,82	%45,88	%45,74	%45,22	%45,07	%45,35	%46,28	%48,47	%47,55
Frantziako Estatuak	%52,13	%51,93	%52,30	%52,40	%52,41	%51,92	%52,07	%52,23	%52,11	%50,99	%51,88	%51,44
Suitza	%54,87	%55,88	%56,64	%56,94	%56,79	%57,60	%57,45	%57,54	%56,71	%57,75	%58,83	%58,03
HEGO E.H.	%49,50	%48,90	%47,70	%46,80	%46,30	%46,10	%45,80	%45,70	%45,70	%45,70	%48,23	-

Iturria: Eurostat, Nastat eta Eustat

SOLDATEN PISUA BPGEAN. BILAKAERA (%)



Iturria: EUROSTAT, NASTAT eta EUSTAT

EUROPAKO HERRIALDEEN ARTEAN DESBERDINTASUNAK AGERIKOAK

Per cápita BPG lurralde batean sortzen den "aberastasunaren" isla da, aberastasun gisa BPG-k neurtzen dituen ondasunak ulertuz¹.

Hego Euskal Herrian, Europan aberastasun gehien sortzen duen herrialdeetatik urrun egon arren, Europar Batasunean batez beste sortzen den aberastasuna baino gehiago sortzen da. Beraz, aberastasun handia sortzen den herrialdeen artean kokatuko dugu.


Gainera, aberastasun honen metaketa aztarna ekologiko handi batekin lotu beharrean gaude. Luxenburgoko da Europan biztanleko aztarna ekologiko altuena duen herrialdea: Europako batezbestekoa oso altua da, 4,56 hektarea biztanleko. Are altuagoa Luxenburgokoa: 13 hag. EAE-koa 4,32 hag dira eta NG-koa 5,2 hag.

Beste kontu bat da aberastasun hori nola dagoen banatuta, edo aberastasun maila bereko herrialdeen inbertsio maila berak


¹ Aberastasun termino hau oso eztabaidagarria da. Esaterako, doan buruturiko zaintza lanak ez dira kontuan hartzen, bai ordea auto ilara batean geldirik gaudenean erretzen dugun erregaia. Edonola ere, ulermena errazteko aberastasun terminoa erabiltzea erabaki dugu.

ditugun osasungintzan edota hezkuntzan (ikus Ikusmiran 08 Euskal Herriko langileriaren lan eta bizi baldintzak 2021eko Azaroan eta Ikusmiran 09 Osasungintza Hego Euskal Herrian eraldaketa baten beharra 2022ko Martxoan). Izan ere, Hego Euskal Herrian sorturiko aberastasuna ez da modu orekatuan banatzen, eta osasungintza edota hezkuntzara beharko lukeena baino BPGren ehuneko txikiagoa bideratzen dute.

BPG BIZTANLEKO URTEAN (2021. €/URTEAN)



BPG BIZTANLEKO EUROPAN. BILAKAERA (€/URTEAN)




Europako herrialdeen artean *per cápita* BPG-ren bilakaera aztertuz, azken hamar urteetan aldeak handitu egin dira.

Luxenburgon biztanleko sortzen den aberastasuna handituz badoa, baita Suitzan ere, oso nabarmena da biztanleko BPG baxuena duen herrialdean, Grezian, mantendu egiten dela. Beste herrialdeetan zertxobait gora egiten badu ere, ez du aberastasun handieneko herrialdeen proportzio berean egiten gorantz.


Euskal Herrian eskualdeen artean ere baditugu desberdintasun nabarmenak. Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko datuen faltan, Euskal Autonomia Erkidegoko datuak ekarri ditugu hona. Nabarmena da Arabako eskualde batzuetako datu altua (Arabako Errioxa, Añana, Gorbeialdea), baita industriak pisu handiena duen hainbat eskualdeetako ere (Durangaldea, Debagoiena, Goierri). Beste aldean lehen sektoreak pisu handia duen Enkartzioak ditugu nabarmen, baita Lea Artibai, Eskumaldea eta Busturialdea.

BIZTANLEKO BPG ESKUALDEKA. EAE (€/URTEAN)



BERRIKUNTZA INBERTSIOA

I+G BPG-EAN (%) HEGO EH- EUROPA



Hego Euskal Herrian BPGean ikerketa eta garapenera bideratutako zenbatekoaren pisuak beherantz egin du 10 urtetan, 2020an igoera bat gertatu den arren. Igoera hori koiuntura zehatz batean ulertu behar dugu, izan ere, termino absolutuetan (eurotan) izaniko igoera oso txikia izan da. BPGean I+G-k duen pisua igo izana, BPG-aren jaitsiera nabarmen batekin lotu behar dugu ezinbestean, eta ez hainbeste ikerketa eta garapenera bideraturiko zenbatekoaren igoeran.

Kontuan izan behar dugu teknologia baxuko enplegua izan ohi dela lehena galtzen 2008ko krisiak ondo erakutsi zigun bezala, eta gainera, behin galdu ezker nekez errekuperatu ohi da enplegu mota hori. Beraz, kalitatezko enplegua sortu eta mantentzeko elementu garrantzitsua da ikerketa eta garapena.


LAN MERKATUA

LAN ERREFORMAREN LEHEN ONDORIOAK

Oraindik goiz da azken lan-erreformak gehiegizko behin-behinekotasuna zuzentzearen helburuari dagokionez izan duen eragina bere horretan baloratzeko. Martxoaren 31ra arte ez da erabat indarrean sartu, behin enpresei lege-aldaketetara egokitzeko emandako trantsizio-epea amaituta.

Hala eta guztiz ere, ondorio nabarmenetako bat kontratazio mugagabearen gorakada nabarmena izan da.

Urte hasieratik kontratu mugagabeak sinatzeak goranzko joera argia markatu du, maila ezezagunetara iritsi arte. Zehazki, martxoan erregistratutako kontratuen % 20 baino gehiago mugagabeak izan ziren. Hala ere, historikoki, kontratazio mugagabeak sinatutako kontratu guztiekiko duen proportzioa ez da % 10etik gorakoa izan.




Urteko lehen hilabeteetan kontratazioak izan duen portaeraren ondorioz, lan-merkatuaren egituran zenbait aldaketa antzeman dira. Gizarte Segurantzako afiliazio-datuen arabera, aurtengo martxoan Erregimen Orokorri² atxikitako pertsonen % 71,4k kontratu mugagabea du, eta beste % 28,6 aldi baterakoa da.

Erreformaren aurreko eta ondorengo alderaketa covid-19aren krisiak azken bi urteetan enpleguan eragin dituen ondorioek kutsa ez dezaten, 2017 eta 2019 urteen artean martxoan izandako batez besteko afiliazio-zifra hartu dugu kontuan.

Lortutako emaitzan oinarrituta, ondoriozta daiteke pandemiaren aurreko urteetan enpleguaren banaketa honako hau zela kontratu motaren arabera: % 67,2 mugagabeak eta % 32,8 aldi baterakoak.

Horrek esan nahi du, erreformaren ondoren, aldi baterako enpleguaren pisua ehuneko 4 puntu baino gehiago murriztuko zela.

AFILIAZIO-EHUNEKOAK, KONTRATU MOTAREN ARABERA



Hala ere, erne jarraitu beharko da, behin-behinekotasunaren erorketa hori sendotzen den edo, aitzitik, irudikeria iragankor baten aurrean gauden egiaztatzeko.

Bestalde, garrantzitsua da gogoratzea arau-esparru berriak, lan-harremanaren presuntzio mugagabea indartzeaz eta aldi baterako kontratazioari muga berriak ezartzeaz gain, aldizkako kontratu finkoaren erabilera zabaldu nahi duela, ezegonkortasun modu berria atea gehiago irekiz.

Izan ere, obra- edo zerbitzu-kontratua ezabatzearekin batera, eredu finko etena bultzatzen da ordezeko gisa. Horrela, kontratu hori urtaroko edo sasoiko lanak betetzeko erabiltzeaz gain, aldizka garatzen diren eta gauzatze-aldi jakin batzuk dituzten ekoizpen-jardueretarako ere erabil daiteke. Era berean, Auzitegi Gorenaren irizpide-aldaketa aprobetxatuz, finko etenen sinadura bultzatzen da merkataritzako zein administrazioko kontratuetan.


Horrez gain, Aldi Baterako Lan Enpresek (ABLE) modalitate hori erabil dezakete kontratatutako pertsonak beste enpresa erabiltzaile batzuei lagatzeko (lagapen-kontratua). Horrek ABLEek presentzia handiagoa izatea eta lan-bitartekaritzan duten eginkizuna areagotzea ahalbidetuko du.

Hala ere, kontratazioaren arloko arau berriak erabat indarrean sartu arte, enpresek hiru hilabeteko luzamendua edo araubide iragankorra izan dute, eta erreformaren aurreko erregulazioaren zatirik handiena aplikatu ahal izan dute. Baina egokitzapen-aldia amaitzen joan den heinean, kontratazio mugagabearen zifrek gorakada nabarmena izan dute.

SEPEren (Servicio Público de Empleo Estatal edo Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa) estatistiken arabera, urteko lehen hiru hilabeteetan Hego Euskal Herrian sinatutako kontratu mugagabeen kopurua ia bikoiztu egin da, eta aldi berean erregistratutako aldizkako kontratu finkoak ia hirukoiztu. Horrela, martxoan kontratu mugagabe guztiekiko aldizkako langile finkoen proportzioa % 10era iritsi zen, eta Nafarroan ehuneko hori % 15era hurbiltzen da.

Nolanahi ere, behin-behinekotasunaz gain, badira gure lan-merkatuaren ezaugarri den lan-prekarietatearen maila handia eragiten duten beste faktore batzuk, eta horien gainean ere jardun behar da. Izan ere, enplegu prekarioa errealitate konplexua eta dimentsio askotakoa da:

- Ezegonkortasuna eta segurtasunik eza enpleguan
- Iraupen laburreko nahi-gabeko lanaldi partzialei lotutako azpienplegua
- Soldata baxuak eta eskasak
- Lan-baldintza gogorak eta lanean exijentzia-maila handia izatea
- Murrizketak gizarte-babesean eta lanari lotutako eskubideetan, hala nola langabeziagatiko edo erretiroagatiko prestazioak eskuratzea.



SOLDATEN % 24K EZ ZITUEN 1.146€ GORDINAK GAINDITU 2020.URTEAN

Espainiako Estatuko Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) zenbatekoa 1.000 eurotara iritsi zen 2022an, hau da, 1.166,67 euroko 12 paga. Hala ere, 2020an oraindik 176.000 pertsona baino gehiago zeuden 1.134 euro gordin baino gutxiagoko hileko soldata jasotzen zutenak, 12 ordainsaritan proportzionalki banatuta (edo prorrateatuta). Horrek esan nahi du besteren kontura lan egiten duten pertsonen % 17,3k kopuru horretatik beherako soldata jaso zutela.

Bestetik, 245.000 soldatapeko langile inguruk, hau da, lautik batek, hilean 1.337 euro gordin baino gutxiagoko soldata jaso zuten (1.146 euro gordineko 14 ordainsari, hain zuzen ere).

Memoria pixka bat eginez, komeni da gogoratzea 2005. urtean "mileurista" esamoldea sortu zela soldata baxuko enpleguak izendatzeko, soldatua hauek ez baitziren nahikoak hilaren amaierara iristeko. Termino horren erabilera berehala nagusitu zen lan-esplotazioaren sinonimo gisa.

Ordutik gaurdaino, bizitzaren kostua (KPlaren bilakaerarekin neurtuta) % 35 eta % 40 artean garestitu da, lurraldeen arabera.

LANGILE KOPURUA, SOLDATA-TARTEAREN ARABERA. 2000 (%)		
Soldatapeko pertsonen kopurua	HEH	%
820,19 € baino gutxiago	98,800	9,7 %
820,19 eta 1.134,15€ artean	77,600	7,6 %
1.134,15 eta 1.336,62€ artean	68,500	6,7 %
1.336,62 eta 1.511,25€ artean	76,200	7,5 %
1.511,25 eta 1.706,41€ artean	81,300	8,0 %
1.706,41 eta 1.941,06 € artean	92,800	9,1 %
1.941,06 eta 2.295,16 € artean	119,900	11,7 %
2.295,16 eta 2.805,95€ artean	124,800	12,2 %
2.805,95 eta 3.585,79 € artean	139,700	13,7 %
3.585,79€ edo gehiago	142,800	14,0 %
Guztira	1.022,400	100%

Unitatea: milaka pertsona | Iturria: INE


EGOERAK SAKONEKO ALDAKETAK ESKATZEN DITU: ENPLEGUA, ZAINITZA ETA ABERASTASUNA BANATU

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) apirileko datuak hartuta, Hego Euskal Herrian aurreko hiru hilabeteetatik nabarmen egin du gora langabetu kopuruak, 4.500 langabetu gehiago, 124.400 langabetu orotara.

Datu zehatzak aztertuz, emakumeen langabezia izan da igoera handiena jasan duena. Izan ere, igo den langabetu kopuruaren %95,55 emakumeak dira, 4300 pertsona hain zuzen ere. Datu hori bat dator sektorekako azterketa kontutan hartzen badugu, zerbitzuen sektorea izan baita langabezia igoera handiena jasan duena. Zerbitzuetan daude sektore feminizatu gehienak, sektore horiek dira enplegu ezegonkorrena sortzen dutenak. Koiunturaren arabera inpaktu azkarrena jaso eta gora-beherak pairatzen dituzte enplegu horien ezaugarriengatik: behin-behinekoa edo enplegu ezegonkorra eta, oro har, prekarioa. Erabili eta botatzeko enplegua da, merkatuaren arabera sortu eta desagertzen dena: urte garairen arabera, edo sortzen diren krisi desberdinen arabera.

Bestetik, langile migratuen langabezia tasa izugarria azpimarratu behar dugu, tasa orokorraren (%10,44 Nafarroa Garaian eta %8,69 EAE) hirukoitzera iritsi baita hiru hilabete honetan (%31,69 eta %24,24 urrenez urren). Langile migratu eta kasu askotan arrazializatuek pairatzen dituzte lan merkatuaren ondorio ankerrenak: esplotazio maila altuenak, lan prekarioak eta langabezia zein pobrezia tasa altuenak ere bai. Maiz lan baldintza horiek legez kanpo egon arren, atzeritarren legearen ondorioz sortzen den errealitatea da, kapitalak esku-lan merkea baliatzen baitu irabaziak handiagoak metatzeko.

LANGABEZIAREN BILAKAERA HEGO EHN (%)



Epe-luzeko langabeziari dagokionez, azken urteetan gero eta langile gehiago daude egoera honetan, urte bete edo gehiago lan bila. 2020an langabetuen %40,30 baziren, 2022an %53,86ra igo da, langabetu guztien erdia baino gehiago epe luzekoak izanik. Lan merkatu dinamiko bat saldu nahi badigute ere, datuok argi erakusten dute egoera estrukturala dela eta behin langabezian egonik, lanpostu bat lortzea oso zaila dela, hainbat baldintza erabakigarriak izanik: adina, ikasketa maila, sexu-generoa, jatorria...

Egoera larria da. Langabeziak gora egin du, inflazioak gora, erosahalmenak behera, pentsioen igoera ez-nahikoa... Eta arazoaren muinera jo ordez, sistema kapitalistaren zutabeetara, langileon soldata jarri da jo puntuan patronalaren eta instituzioak kudeatzen dituzten alderdien aldetik.

EKONOMIA EHUNA GALTZEN

Hego Euskal Herria ekonomia ehuna galtzen ari da establezimenduen (merkataritza-saltoki edo lokal gisa ulertuta) datuei erreparatzen badiegu. Azken hamarkadan ekonomia ehunaren %13,19 galdu da eta azken urteetan joerak bere horretan jarraitzen du, eta nabarmentzekoa da 2020tik 2021era eskualde guztiek galdu dituztela establezimenduak.

Edonola ere, sektorearen edo establezimenduaren tamainaren arabera irakurketa aldatu egiten da.

HANDIEN IGOERA, TXIKIENEN KALTETAN

Oro har, establezimendu kopuruak beherantz egin badu, oso nabarmena da establezimenduaren tamaina faktore garrantzitsua dela. Izan ere, establezimendu kopuruaren bilakaera tamainaren arabera aztertuz, azken hamarkadan 200 langile edo gehiagoko establezimenduak izan dira igo diren bakarrak, gehien jaitsi direnak 6 langiletik 49 bitartekoak edo neurri batean 99 langile bitartekoak izanik.

Datuok establezimendu txikien itxiera geraezin bat erakusten digute, dirudienez, libre uzten duten merkatuko eremua handien esku utziz.

ESTABLEZIMENDU KOPURUAREN BILAKAERA TAMAINAREN ARABERA (HEGO EH)				
	2.010	2.021	2010/21	2010/2021 %
OROTARA	212129	184158	-27971	-%13,19
Soldatapekorik gabe	112376	96.657	-15719	-%13,99
1etik 2ra	58.775	53.212	-5563	-%9,46
3tik 5era	19.069	17.284	-1785	-%9,36
6tik 9ra	9.379	7.124	-2255	-%24,04
10etik 19ra	6.503	5.046	-1457	-%22,41
20etik 49ra	3.896	2.987	-909	-%23,33
50etik 99ra	1.147	919	-228	-%19,88
100etik 199ra	570	489	-81	-%14,21
200 edo gehiagokoak	414	440	26	%6,28

Iturria: Estatu Espainoleko Estatistika Institutu Nazionala (INE)

DESOREKAK SEKTOREEN ARTEAN

Establezimenduek oso modu desorekatuan egin dute gorantz edo beherantz sektorearen arabera. Higiezinak jarduerak, industria eta eraikuntza izan dira establezimenduen galera handiena izan dutenak. BPGren bilakaerarekin bat egingo luke honek, sektore horien pisua ekonomian gero eta txikiagoa baita. Zerbitzuen bilakaera ordea bestelakoa da. Komertzioak, garraioak eta ostalaritzak asko egin dute beherantz, baina BPGean zerbitzuek gero eta pisu handiagoa daukate. Zerbitzuen sektorea hain heterogeneoa izanik zaila da ondorio bakar bat ateratzea datu hauetatik, baina establezimenduen tamainak zer esana izan dezake. Edonola ere zerbitzuen sektoreak orokorrean gorantz egin du DIRCE-k (Directorio Central de Empresas edo Enpresen Direktorio Nagusiak) eskaintzen dizkigun datuon arabera.



Establezimenduei dagokienez gorantz gehien egin duten sektoreak hezkuntza, osasungintza eta zerbitzu sozialak dira, baita informazioa eta komunikazioak ere.

EAEen establezimenduen itxiera zein irekierak zenbat langileri eragiten dioten aztertuta (Nafarroako Foru Erkidegoak ez dizkigu datu horiek eskaintzen), 2020-2021 aldian 12.185 lanpostu galdu ziren, gehienak industrian (4.812), komertzio, garraio zein ostalaritzan (4.463) eta jarduera profesional zein osagarrietan (2.370). Sortu baino lanpostu gehiago suntsitu arren, informazio zein komunikazioaren esparruan, higiezinak jardueratan eta, bereziki, administrazio publikoetan lanpostuak sortu ziren (orotara 1.745, galdutako lanpostuen oso azpitik, beraz).

ESTABLEZIMENDU KOPURUAREN BILAKAERA HEGO EHN JARDUERA ADARRAREN ARABERA (HEGO EH)

	2012-2015	2015-2020	2020-2021	2012-2021
OROTARA	-4,49	-2,27	-1,76	-8,06
Industria	-10,94	-9,03	-1,80	-18,81
Eraikuntza	-17,35	-4,83	-2,29	-20,57
Komertzioa, garraioa eta ostalaritza	-3,44	-7,26	-3,22	-12,78
Informazioa eta komunikazioak	2,08	8,09	1,07	12,30
Finantza jarduerak eta aseguruak	2,09	-9,65	-1,49	-8,24
Higiezin jarduerak	-42,44	5,97	-2,59	-27,27
Jarduera profesional eta teknikoak	1,66	-0,31	-1,03	0,32
Hezkuntza, osasungintza eta zerbitzu sozialak	10,26	9,77	0,84	24,54
Beste zerbitzu pertsonalak	-0,76	9,68	0,70	10,65
Zerbitzuak orotara	0,58	4,35	-0,26	4,89

Iturria: INE



AZKEN URTEAN ESKUALDE GUZTIETAN GALDU DA EKONOMIA EHUNA

Azken hamarkadan oso eskualde gutxi dira establezimendu kopurua irabazi dutenak, eta nabarmentzekoa da gehienak Arabako eskualdeak direla: Añana, Arabako Mendialdea, Arabako Errioxa eta Gorbeialdea. Ekonomia ehunean gorantz egin dute beste bi eskualdeak Bizkaikoak dira: Enkartzioak eta Eskumaldea. Nafarroa Garaian eta Gipuzkoan beraz eskualde guztiek egin dute beherantz establezimendu kopuruei dagokienez.

Edonola ere, 2020tik 2021ra eskualde guzti guztiek ekonomia ehuna galdu dutela azpimarratu nahi genuke. Datozen urteetako joerek erakutsiko digute pandemiaren ondoriozkoa soilik izan den edota azken urte luzeetako joeraren azkartze bat izan den.

ESTABLEZIMENDU KOPURUAREN BILAKAERA ESKUALDEKA									
	2011/ 2.015		2015/ 2.021		2011/ 2.021		2020/ 2.021		Kopuru Gordina 2021
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	
Nafarroako Ipar-mendebaldea	-141	-%2,99	-555	-%12,12	-696	-%14,75	-355	-%8,11	4.023
Nafarroako Pirinioa	-11	-%1,00	-55	-%5,03	-66	-%5,97	-28	-%2,62	1.039
Iruñea	-231	-%0,98	-1553	-%6,64	-1784	-%7,55	-2304	-%9,55	21.831
Lizarralde	-174	-%6,30	-36	-%1,39	-210	-%7,61	-80	-%3,04	2.551
Nafarroa Erdialdeko Ekialdea	-94	-%4,30	-84	-%4,02	-178	-%8,15	-90	-%4,29	2.007
Erribera Garaia	-464	-%11,79	-53	-%1,53	-517	-%13,13	-168	-%4,68	3.420
Tuteraldea	-473	-%7,55	-121	-%2,09	-594	-%9,49	-259	-%4,37	5.667
Añana	158	%37,35	82	%14,11	240	%56,74	-5	-%0,75	663
Arabako Lautada	-770	-%3,96	-692	-%3,71	-1462	-%7,53	-194	-%1,07	17.958
Arabako Mendialdea	116	%44,44	11	%2,92	127	%48,66	-4	-%1,02	388
Arratia	82	%4,52	-144	-%7,59	-62	-%3,41	-71	-%3,89	1.754
Bidasoa Beherea	-622	-%8,46	-388	-%5,76	-1010	-%13,74	-12	-%0,19	6.343
Bilbo Handia	-5247	-%6,99	-2349	-%3,36	-7596	-%10,11	-440	-%0,65	67.506
Debabarrena	-155	-%3,63	-266	-%6,47	-421	-%9,87	-48	-%1,23	3.845
Debagoiena	-213	-%4,96	-294	-%7,21	-507	-%11,82	-5	-%0,13	3.784
Donostialdea	-2235	-%6,94	-1161	-%3,87	-3396	-%10,54	-198	-%0,68	28.831
Durangaldea	-407	-%5,32	-191	-%2,64	-598	-%7,81	-82	-%1,15	7.054
Enkartzioak	284	%11,83	-108	-%4,02	176	%7,33	-23	-%0,88	2.577
Arabako Errioxa	538	%40,24	161	%8,59	699	%52,28	-150	-%6,86	2.036
Busturialdea	-74	-%2,13	-165	-%4,85	-239	-%6,88	-25	-%0,77	3.237
Goierri	-137	-%2,72	-271	-%5,52	-408	-%8,09	-18	-%0,39	4.635
Gorbeialdea	37	%4,65	47	%5,64	84	%10,55	-1	-%0,11	880
Arabako Kantaurialdea	107	%4,79	-107	-%4,57	0	%0,00	-67	-%2,91	2.232
Lea-Artibai	95	%5,10	-184	-%9,40	-89	-%4,78	-41	-%2,26	1.774
Eskumaldea	46	%1,12	120	%2,90	166	%4,05	-42	-%0,98	4.264
Tolosaldea	-78	-%1,89	-285	-%7,06	-363	-%8,82	-32	-%0,85	3.754
Urola Kosta	123	%2,02	-394	-%6,33	-271	-%4,44	-44	-%0,75	5.832
HEGO EH	-9940	-%4,34	-9035	-%4,13	-18975	-%8,29	-4786	-%2,23	209885
Iturria: Eustat eta Nastat									

HEGO EUSKAL HERRIKO PRESIO FISKALA, EUROPAKO BATAZ BESTEKOAREN OSO AZPITIK

2020an 29.687,5 milioi euro bildu ziren guztira Hego Euskal Herrian zerga eta gizarte-Kotizazioengatik, hau da, aurreko urtean baino % 7 gutxiago.

2012. urteaz geroztik, gure herrialdeko diru-sarrera fiskalek ez dute beherakadarik izan. Baina oraingo honetan, COVID-19aren eraginak eragin larria izan du haren bilakaeran, baita pandemiaren ondorioak arintzeko hartutako neurri politikoei ere.


Logikoa denez, Europar Batasuneko (EB) estatu kide gehienek diru-sarrera fiskalak murriztu dituzte. Estatu kideetako diru-bilketaren murrizketa oso desberdina izan da; baina EB osoan zerga-sarreraren murrizketa % 3,7koa izan zen. Hala ere, Hego Euskal Herrian, sortutako eta kontabilizatutako aberastasunaren (BPG) arabera zerga-sarreraren bilketatzat jotzen den presio fiskala handitu egin zen: 2019ko % 31,4tik 2020ko % 32,3ra.

Itxurazko kontraesan horren arrazoia da 2020an BPG % 9,5 jaitsi zela gutxi gorabehera termino nominaletan, pandemiak eragindako jarduera ekonomiko txikiagoaren eta haren hedapena geldiarazteko ezarritako mugikortasun-murrizketen ondorioz.

Europar Batasuneko batez besteko presio fiskala ere % 39,9tik % 40,2ra igo zen 2019an 2020an, eta eurogunean % 40,3tik % 40,5era. Datu horiek ikusita, ondoriozta dezakegu gure herrialdean administrazio publiko guztien bilketa (hiru erakunde-mailen eta Gizarte Segurantzaren batura) Europar Batasuneko batez bestekoaren oso azpitik dagoela.

Zehazki, herrialdearen garapen-mailarekin eta ahalmen ekonomikoarekin bat etorritz (BPGren arabera neurtuta), 2020an bildutako diru-sarreraren bolumena espero zitekeena baino % 26 txikiagoa izan zen gutxi gorabehera, betiere presio fiskala EBko kideen batez bestekoaren antzekoa izan balitz.

PRESIO FISKALA EUROPAN



Iturria: geuk egina Eurostat, Eustat, Nastat eta
Espainiako Estatuak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren datuekin (EEGSDN).

INGURUMENA

BEGIRADA OSATZEAREN GARRANTZIA

Barne Produktu Gordina (BPG) da herrialde baten bilakaera ekonomikoa neurtzeko modurik erabiliena. Lurralde jakin batean ekoizten diren ondasun, zerbitzu eta inbertsio guztien balioa batuz lortzen den kopurua da. Erabiliena izateak, ordea, ez du esan nahi errealitatea ikuspegi integraletik aztertzen duenik.

BPG-k ez du azterna ekologikoa neurtzen ez eta merkatutik kanpo dagoen lana edota herritarron zorientasuna ere ez. Programa Sozioekonomikoan aldarrikatzen dugun bezala, garapen sozial burujabeaz hitz egiteko, bestelako indize batzuk behar ditugu, bestelako aldagaiak neurtzeko gaitasuna izango dutenak, hala nola: herritar guztien zaintza, osasuna, hezkuntza eta sozializazioarekiko asebetetze maila; herritar guztiei bizitza duin, aske eta betea izateko eskaintza bermatzeko aukerak; herritar guztiek euskal hizkuntza eta kultura ezagutu, bizi eta berrasmatzeko aukerak; sortzen den aberastasunak naturan edota gure ingurune naturalean duen inpaktua...

Beraz, aldagai ekonomikoez gain, gaur egungo testuinguru aldakor honetan, zeinetan trantsizio energetiko, zaintza- edo garapen-eredu berrietarako urratsak aldarrikatzen ditugun, ezinbestekoa da azterketaren eremuan ere, gure praktika zabaltzea.

Garapen iraunkorra kontuan hartuta, proposamen interesgarriak daude lurraldeen aberastasuna neurtzeko, nahiz eta Euskadi oraindik ez agertu datu estatistikoetan. Jarraian, horietako batzuk aztertu eta euren arteko ezberdintasun nagusiak landuko ditugu

GARAPEN IRAUNKORREKO POLITIKEN KOHERENTZIA-INDIZEA (GIPKI)

28

Herrialde bakoitzak giza garapen iraunkor, justu eta bidezkoarekin duten konpromisoa neurtu, ebaluatu eta alderatzeko sortu zen GIPK indizea. Indize honek, **politika publikoen garapen jasangarria lau dimentsioetatik** (ekonomia, soziala, ingurumena eta politikoa) aztertzen ditu; batetik, politika eta dimentsio bakoitzerako garapen iraunkorraren, generoaren eta giza eskubideen ikuspegitik ebaluatu beharreko funtsezko alderdiak zehazteko; eta, bestetik, gai horiek neurtzeko adierazleak identifikatzeko. Horretaz gain, politikak zeharka ebaluatzen dira generoa, giza eskubideak, ekologia eta izaera kosmopolita aztertuz.

GIPKI indizeak, aztergai dituen politika publikoek herrialde baten garapen iraunkorrari ekarpen positiboa ala negatiboa egiten dioten aztertzen du; baita herrialde horretan bertan ez ezik, hirugarren herrialdeetan edo planeta osoan egiten duen ekarpena ere. Horrela, herrialde baten garapena beste herrialde batzuenarekin eta planeta osoarenarekin bateragarria bada bakarrik kontsideratuko da garapena dela.

2019.urtean eginiko GIPKI-ak 57 adierazle zituen eta 148 herrialde aztertu ziren. Zenbait emaitza esanguratsu, jarraian agertzen diren taulatan aurkituko dituzue.

Luxemburgon biztanleko sortzen den aberastasuna handituz doan bitartean (BPG per capita neurtuz), GIPKI indizeak ingurumenean ematen dion balio txikiaren ondorioz, sailkapenaren 42.postuan dago. Antzekoa gertatzen da Belgika edota Herbehereak hartzen baditugu.

Dena den, datuak aztertzerako orduan, kontutan hartu behar dugu dimentsio bakoitzeko aldagaiak haztatze edo ponderatzeko, aldagai guztiei pisu bera ematea erabaki dela eta horrek azken emaitzan eragiten duela. Izan ere, Bolivia edo Nikaragua herrialde guztietatik ingurumen aldagai altuenak izan arren, sailkapen orokorrean 48 eta 68 postuetan aurkitzen dira, eremu produktiboan atxiki zaien balio ez hain altuagatik.

Esan genezake sailkapen honen lehen 10 postuetan dauden herrialdeek, azterturiko 5 eremuetan balio nahiko antzekoak dituztela, beti ere, batz bestekotik gora. Estatu espainiarra 9.postuan kokatzen da, esate baterako, estatu frantsesa 28.ean dagoen bitartean (kasu honetan, ingurumenean duen balio txikiak haztatzean eragina du, beherantz).

GIPKI MUNDUAN							
Postua	Herrialdea	GIPKI	Ekonomikoa	Soziala	Globala	Ingumena	Produktiboa
1	Danimarka	79,02	91,94	86,79	84,51	44,63	87,24
2	Islandia	77,18	83,61	88,1	78,86	40,73	94,6
3	Suezia	73,21	87,29	85,18	81,73	42,35	69,5
4	Norvegia	72,75	90,73	84,53	81,06	29,89	77,56
5	Portugal	71,71	73,08	76,62	74,68	48,22	85,98
6	Zelanda Berria	71,25	67,2	80,57	78,83	43,4	86,25
7	Australia	70,61	64,94	80,01	78,68	38,09	91,34
8	Finlandia	70,4	93,16	82,77	78,03	40,46	57,58
9	Espainiar estatua	69,37	67,48	71,78	75,73	46,09	85,79
10	Kroazia	68,42	81,63	70,5	66,95	46,92	76,08
	(...)						
21	Alemania	64,16	72,48	84,65	78,23	32,89	52,54
24	Uruguay	63,24	51,05	63,99	63,43	50,3	87,41
25	Japonia	62,98	55,03	68,87	69,31	33,46	88,21
28	Estatu frantsesa	61,62	74,96	75,73	61,89	36,98	58,56
35	Belgika	58,81	78,86	77,62	77,54	10,85	49,15
38	Herbehereak	57,89	66,51	77,32	81,99	13,22	50,39
40	Albania	57,46	45,05	54,2	61,76	50,01	76,25
42	Luxenburgo	57,32	39,18	79,85	68,67	7,52	91,37
48	Bolivia	56,27	44,34	58,94	51,84	66,04	60,17
68	Nikaragua	52,64	41,9	46,03	51,34	69,42	54,51
91	AEB	44,72	44,85	75,82	36,98	14,57	51,39
105	Kuwait	41,05	51,05	65,62	19,29	6,39	62,9
114	Katar	38,22	56,4	66,86	30,4	03	37,42
141	Kongoko errepublika	30,45	45,98	7,63	36,3	60,06	2,27

Iturria: Coordinadora, Espainiar garapenerako ONGa

GIZA GARAPENAREN INDIZEA (GGI)

Giza garapenaren indizea (GGI) Nazio Batuen Garapenerako Programaren (GNBP) eskutik sortutako adierazlea da. Herrialde bakoitzaren garapen-maila neurtzen du, hainbat aldagairen arabera (hala nola osasuna, per capita BPG, hezkuntza-maila). Neurketen bidez, **munduko gizarteek hazkunde ekonomikoa izateko dituzten aukerak erakusten ditu**, bai eta estatuak helburu horretarako ingurune egokia ote duten eta, oro har, bizi-baldintzak nola errazten dizkieten ere.

90eko hamarkadan indize horrek per capita BPG ezbaian jarri zuen, ongizateari buruzko gogoetak zabalduz eta antzeko sarrera-mailak dituzten herrialdeek garapen maila oso desberdinak izan ditzaketela erakutsiz. Gaur egun, garapenaren paradigma zabalduta egin da, eta kontzeptu berriak erdigunean kokatzearen beharra agerizkoa da, hala nola desberdintasunak, gobernagarritasuna eta ingurumena. Indize honek hazkunde ekonomikoa helburu izaten jarraitzen duen neurrian, oso mugatua geratu da, ez baita garapenaren paradigma eraldatzaileari erantzuten.

BERTELSMANN, BS/SDGI

BS-SDGI indizea kalkulatzeko, NBERen Garapen Iraunkorreko 17 helburuak betetzen ote diren aztertzeke adierazle eta azpiadierazle batzuk hautatzen dira. Ondoren, batez bestekoa egiten da posizionamendu globaleko azken zenbaki batean, BS-ODS indize globala deritzona lortuz. Aukeraturako adierazle gehienek ongizatea (osasuna, hezkuntza edo nutrizioa bezalako arloetan) edo aberastasun materiala (energia, azpiegituran) neurtzen dutenez, azken batez bestekoa oso lotuta dago NBERen Giza Garapenaren Indizearekin (GGI).

Zentzu horretan, esan genezake BS-ODS indize globalak egungo estrategiaren jarraipena babesten duela. Izan ere, garapenaren helburua ekonomiarik edota produktibitateari lotzen jarraitzen zaio, nahiz eta bestelako aldagaiak erabili. Indize honen emaitzek ez dute ahalbideratzen pertsonak zein natura erdigunean izango dituen eredu berri baten ezaibidea edota trantsizio hori egiteko estrategia zein taktikaren berrikuspena.

JASON HIKEL, JH/SD

JH-SDIk ere Nazio Batuen Giza Garapenaren Indizea (GGI) hartzen du abiapuntutzat, baina onartzen du GGlan puntuazio onena lortzen duten herrialdeek ere ekarpen handiagoa egiten diotela, per capita, klima-aldaketari eta beste suntsipen mota batzuei. Ildo horretan, GGIak garapen-eredu berri bat sustatzen du, enpirikoki bateraezina dena funtsezko adierazle ekologikoekin: CO2 isuriak eta aztarna materiala, biak per capita kontsumo-terminoetan kalkulatuak eta planeta-mugekiko proportzioan.

Indize honek ere hutsuneak dituela jakinik (adib, desberdintasunak kontutan ez hartzea, genero-arrakalak barne), herrialde baten garapena neurtu zein definitzerako orduan, eztabaida potoloak ireki ditzake. Izan ere, 5 adierazle soilik erabiliz (bizi-itzaropena, hezkuntza, diru-sarrerak per capita, aztarna materiala eta CO2 isurketak) herrialde baten garapenaren paradigma aldaketa zabaldu dezake, non gauden ezagutu eta bizitza erdigunean izango duen erdua lortzeko lehentasunak identifikatzeko.

GARAPEN IRAUNKORRA BS/SDGI ETA JH/SD INDIZEEN ARABERA NEURTUTA: AGERIZKO EZBERDINTASUNAK, SAILKAPENAK HANKAZ GORA

GARAPEN IRAUNKORRERAKO BS/SDG ETA JH/SD INDIZEEN ARABERAKO 10 HERRIALDE HOBERENAK				
Sailkapena	Herrialdea	BS – SDG (2021)	Herrialdea	JH – SD (2019)
		(1 – 100)		(0-1)
1	Finlandia	85,9	Kosta Rica	0,85
2	Suezia	85,61	Sri Lanka	0,0836
3	Dinamarka	84,86	Georgia	0,823
4	Alemania	82,48	Panama	0,811
5	Belgika	82,19	Kuba	0,811
6	Austria	82,08	Dominikar Errepublika	0,811
7	Norvegia	81,98	Peru	0,809
8	Estatu frantsesa	81,67	Armenia	0,807
9	Eslovenia	81,6	Albania	0,806
10	Estonia	81,58	Moldavia	0,805
	(...)		(...)	
	(20) Espainiar estatua	79,46	(113) Estatu frantsesa	0,49
			(124) Estatu espainiarra	0,443

Iturria: Global Policy Watch, Politika Globalen Behatokia

GARAPEN IRAUNKORRERAKO BS/SDG ETA JH/SD INDIZEEN ARABERAKO 10 HERRIALDE OKERRENAK				
Sailkapena	Herrialdea	BS – SDG (2021) (1 – 100)	Herrialdea	JH – SD (2019) (0 – 1)
165	Afrikako Errepublika Zentrala	38,27	Singapur	0,099
164	Hego Sudan	38,91	Kuwait	0,103
163	Txad	40,9	Arabiar Emirerri Batuak	0,126
162	Somalia	45,61	Katar	0,154
161	Liberia	48,65	Australia	0,156
160	Nigeria	48,93	AEB	0,163
159	Madagaskar	49,01	Islandia	0,178
158	Kongo Errep Dem	49,3	Kanada	0,179
157	Sudan	49,48	Norvegia	0,188
156	Nigeria	49,53	Finlandia	0,225

Iturria: Global Policy Watch, Politika Globalen Behatokia

BS/SDG indizean herrialde aberatsek CO₂ isurketatan eta arrasto materialean duten balio txarra diluitua gelditzen da, 17 azpiindizeen batz bestekoa egiten delako. JS/SD indizean, aldiz, bi aldagai hauek konbinatuta, zuzenean sailkapena zigortzen dute.

JH-SDIn, indizeak gora egiten du herrialdeak aberastu ahala, baina bere balioa maximora iristen da herrialdeak urteko per capita 19.026€ inguruko diru-sarrerara iristen direnean, erosketa-parekotasun terminoetan. Diru-sarrerak kopuru horretatik gora hazi ahala, indizearen balioak jaitsi egiten dira, aberastasun handiagoa CO₂ emisio handiagoei eta aztarna material handiagoei lotzen duelako.

Bi indizeek Nazio Batuek ezarritako Giza Garapenerako 17 Helburuak abiapuntutzat hartzen dituzten arren, herrialde aberatsek egindako gehiegizko erauzketa, kontsumo eta metaketaren ondorio negatiboak islatzen dituzten adierazle ekologikoak sartzeak (JH/SD) garapenari buruzko paradigma tradizionala kolokan jartzen du, neurri handi batean.

AIREAREN KALITATEA, PROZESU INDUSTRIAL ETATIK SORTZEN DIREN GASEK KUTSATZEN DUTE BATIK BAT

Aztergai dugun atal hau Ikusmiran egoeraren azterketan txertatu dugu, errealitatearen argazki osoagoa lortzea helburu. Zentzu horretan, datu estatistiko ofizialez gain, bestelako iturrietatik lortu dugu informazioa.⁴

Airearen kalitatea kalkulatzeko, Airearen Kalitate Indizea (AKI) erabiltzen da (www.aqicn.org). Indize honek, airean dauden partikula kutsakorrek ze mailatan dauden atmosferan neurtzen du. Partikula kutsakor hauek naturak berak sorturikoak izan daitezke edota gizakion jardueraren ondorioz sortuak.

Gizakion jardueraren ondorioz, airearen kalitatea gehien kutsatzen duten partikulak hauexek dira: nitrogeno oxidoa (NO₂, NO, NO_x), Azufre dioxidoa (SO₂), ozono troposferikoa (O₃) eta karbono monoxidoa (CO). Ozono troposferikoa, goi geruzetan dagoen ozonoa da, eguzki izpietatik babesten gaituena. Aldiz, ozonoa behe geruzatan dagoenean, gizakiarekin kontaktuan, oso kaltegarria bilakatzen da eta gaixotasun askoren iturria da. NO₂ eta SO₂ gasak arnas aparatuko gaixotasun askoren eragile nagusia dira. Aipaturiko gas hauek, batik bat, prozesu edo instalazio industrial handietatik sortzen dira (emisio maila altuagatik aipatzekoak dira zentral termoelektrikoak edota paper fabrikak). Gas naturalaren erabilerak ere, sortzen ditu gas hauek, baina maila askoz txikiagoan (adib. etxeetako kalefakzioak). Karbono monoxidoa (CO), aldiz, kotxeek konbustio bidez sortzen dute batez ere.

Naturako fenomeno naturalen bidez, airearen kalitatean eragina duten beste bi gas hauek sortzen dira: suspentsioan dauden partikulak (adib, kalima suspentsioan dauden hondar partikulak airean daudenean edota sumendi baten erupzioaren ondorioz atmosferan gelditzen diren hautsak) eta metanoa (CH₄), animalien gorotzek botatzen duten gasa.


Hori dela eta, airearen kalitatea industria handiak edota garraio fluxu handiak dauden zonaldeetan kutsakorragoa da. 2022ko maiatzaren 11ean, Euskal Herriko airearen kalitate kaxkarrena Bilbo Handian neurtu zen, Barakaldo eta Bilboko Mazarredo kaleetan egonik kutsatze maila altuena.

BEROTEGI EFEKTUAREN ERANTZULE NAGUSIA ERREGAI FOSILEN KONBUSTIOTIK SORTURIKO CO₂

Berotegi efektua, ordea, karbono dioxidoak (CO₂) eta metanoak (CH₄) sortzen du batik bat. Metanoak negutegi efektua areagotzeko gaitasuna du; gaur egun, ordea, kantitate txikian dago. Hori dela eta, arreta CO₂ isurketatan jarri beharko litzateke. Karbono dioxidoa erregai fosilak (ikatz, gas naturala eta petrolioak) erretzetik sortzen da, energia sortzeko baliatzen dena edota garraioarekin sortzen dena (autobusa edota trena salbuetsita geldituz).

Jarraian agertzen diren grafikoetan, Berotegi Efektuko Gas (BEG) isurketak sektoreka aztertu ditugu, EAEn 2019ko datuak dira, NG-an 2018koak)

BEROTEGI EFEKTUKO ISURKETAK SEKTOREKA




Iturria: EAE-ko berotegi-efektuko gasen emisioen inbentarioa, 2019. IHOBE & Inventario de emisiones GEI de Navarra 2018, KLINA

Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako datuak aztertuz, berotegi efektua sortu edota areagotzen duten gas nagusiak prozesu industrial handietatik eratortzen dira. EAE-ren kasuan garraioak BEG isurketen %35 sortzen du, energia sektoreak %32 eta industriak %18. Nafarroan tendentzia mantentzen da (industria sektoreak %30,01, garraioak %23,27 eta energiak %12,1). Kasu honetan, lehen sektoreak lurraldean duen pisuaren ondorioz, sektore honetako BEG isurketak %20,99a suposatzen dute. Bi kasuetan ikus daitekeen moduan, biziguneetan sortzen diren BEG-en isurketak gutxienean dira (EAEn %7 eta NFEan %9,97), zerbitzu sektorearekin elkarturiko datua izanik ere.

EAE-ren kasuan, sektore bakoitzak egiten duen energia kontsumoaren arabera esleituriko BEG isurketak ere aztertu ditugu. Grafikoan ikusten den bezala, garraioak sortzen duen kontsumoak sortzen du BEG isurketa gehien (%35), ondoren industria (%29) eta energiaren eraldaketa sektorea (%13) kokatuz.

Sektore bakoitzak zuzenean isurtzen dituen BEG-ak eta sektoreka egiten den energia-kontsumoaren arabera esleitutako BEG-ak aztertuta, joera mantentzen da. Hurrenez hurren, garraio sektorea (%35), industria (%29) eta energiaren eraldaketa (%13) dira BEG gehien isurtzen dituzten sektoreak.

BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN ISURKETA EAEN, SEKTORE BAKOITZARI ELEKTRIZITATE KONTSUMOAREN ONDORIOZ ESLEITZEN ZAION ISURKETA (2019, EAE)



Iturria: Berotegi Efectua Eragiten duten Gasen Emisioen Inbentarioa. 2019. IHOBE

Esan dezakegu gizakion osasunarentzat garrantzitsua dela airearen kalitate egokia bermatzea, airea kutsatzen duten gasak baitira arnas aparatuko gaixotasunen eragile nagusi. Berotegi efektua areagotzen duten gasek, ordea, gure planeta nahiz ekosistema jartzen dute arriskuan, aldaketa klimatikoaren eragile nagusia delako. Bi kasuetan, gehien kutsatzen duten eremu kolektiboetan edota prozesuetan egin beharko litzateke esku-hartze publikoa.

Instituzioek gobernatzen dituzten alderdiek erantzukizun indibidualean eta norbanako gisa gure eremu pribatuan har ditzakegun neurrietan arreta jarri arren, egoera erreala eraldatzeko prozesu kolektiboak dira aldatu beharrekoak. Prozesu industrialak eta garraio ereduak izanik berotegi efektua areagotu zein airearen kalitatearen kutsatze-mailaren eragile nagusiak, eredu sozioekonomiko kapitalista egon beharko luke ezbaian. Zentzu horretan, trantsizioa bideratzeko plangintza estrategikoak behar dira maila ezberdinetan eta plangintza horiek inplementatzeko politika publikoak. Programa sozioekonomikoan aipatu bezala, LAB sindikatuak Bidezko Trantsizio Batzordeak sortzea proposatzen dugu, inplikaturik dauden alde guztien parte hartzea bermatuz.

GASTU MILITARRA GORA, EUROPAN MAXIMO HISTORIKOA


2014.urtean NATOren baitan ezarri zen, beranduenez, 2024 urterako berau osatzen duten 30 estatuek BPG-aren %2a gastu militarrean bideratu beharra. 2020.ean Europar Batasunak gastu militarrean gastaturikoa maximo historikotzat hartzen da (176.771,2 milioi euro), BPG-aren %1,3a, hain zuzen ere, 6 urtez jarraian gorakada izan duen kopurua.

Stockholm International Peace Research Institutetik (SIPRI) apirilean argitaraturiko txostenean, mundu mailako gastu militarrek lehen aldiz 2 billoi dolarretik gora egin duela jakinarazi zuen, BPG globalaren %2,2ara iritsiz.

2020.urteko datuak eskuan, Estatu espainiarrak NATOk harturiko konpromisoa betetzeko, 11.857 Milioi € gehiago inbertitu beharko litzateke egun egiten duen gastu militarra BPG-aren %2ra iristeko, %112ko igoera, hain zuzen ere. Konparazio bat egite aldera, kopuru hori Estatu espainiarreko gizarte segurantzaren defizit kontablearen parekoa litzateke, 2021ko itxiera exekuzioaren arabera.

Ia 12.000 milioi euro horiek administrazio publikoek 2020ean ingurumenaren babeserako erabilitako kopuruaren antzekoa litzateke (Eurostat-en arabera, 10.784 milioi), etxebizitza zein zerbitzu komunitariotarako aurreikusitako dirua bikoiztuko luke (5.071 milioi) edota goi mailako hezkuntzan inbertitzen dena nabarmen gaitzitu luke (7.257 milioi). Gastu militarretara bideraturiko kopurua, produktu, tresna edota ekipamendu medikuetarako 2020ean egindako inbertsio publikoaren oso antzekoa litzateke (13.000 milioi)

FRANTZIAR ETA ESPAINIAR ESTATUEN GASTU MILITARRAREN BILAKAERA (BPGAREN %)



Iturria: Eurostat


SIPRIk apirilean publiko egindako datuen arabera, 2021.ean Estatu espainiarreko gastu militarra BPG-aren %1,4a izan zen.

Estatu frantsesari dagokionean, 2020.urtean gastu militarrean egindako gastua BPGaren %1,9 suposatzen zuen, 44.216 milioi euro, Eurostat-en arabera. Urtez urte gorantz doan zifra izanik, 2024.urterako Frantziak erraz gaindituko du NATOk ezarritako kopurua.

Euskal Autonomia Erkidego (EAE) zein Nafarroako Foru Komunitateek (NFK) ez dute eskumenik eremu honetan; ondorioz, ez dituzte inbertsio zuzenak egiten aurrekontu bidez. Subentzio bidez, ordea, Eusko Jaurlaritzak aeronautika sektoreari loturiko hainbat industria militar lagundu izan ditu, adibide bat jartzearen.

Bizitza eta kapitalaren arteko gatazkaren gordintasunean, non eredu kapitalista krisi egoeran dagoen, armez hornitzea zein gaitasun militarra areagotzea krisiari aurre egiteko erabaki politikoak dira.

ESPAINIAR ESTATUKO GASTU MILITARRA, BESTE ZENBAIT GASTUREKIN ALDERATUZ (2020)




Iturria: Eurostat

MIGRAZIOAK ETA PERTSONA ERREFUXIATUAK

BIZTANLERIA MIGRATUA, URTEZ URTE GORA DOAN ERREALITATE ISILDUA


Aldaketa klimatikoak behartuta, gerra zein gatazken ondorioz (Yemen, Siria, Palestina, Sahara...), bortizkeria, desjabetze edota pobreziatik ihesi euren herria utzi eta etorkizun hobe baten bila munduan zehar barreiaturik dabiltzan herritarrak milioika zenbatu daitezke. Migrazioarako Nazioarteko Erakundearen arabera (MNE), 2020. urtean 281 milioi migratzaile zeuden, mundu osoko biztanleriaren %3,6a, urtez urte haziz doan errealitatea jarraian agertzen den grafikoak argi adierazten duenez.

MUNDU MAILAKO BIZTANLERIA MIGRATUAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Migrazioaren Nazioarteko Erakundea (MNE)

ESPAINIAKO ESTATUTIK KANPO JAIOTAKO HEGO EUSKAL HERRIKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA (%)



Iturria: Eustat eta Nastat


Migrazio fluxu ezberdinen isla da HEHan espainiar estatutik kanpo jaiotakoen kopurua 2008tik %46 igo da (2008. urtean estatutik kanpo jaiotako herritarrak %7,59 ziren eta 2021. urtean %11,14). Jakin badakigu datu ofizialetatik kanpo daudela gure herrian, modu irregularrean, lan eta bizi diren herritarrak; horregatik, gehiago izango dira, kopuru zehatzik ez badugu ere, bizi zein lan baldintza okerragoetan.

ERREFUXIATUEN BABESA, ERABAKI POLITIKOEN MENPE

Ukrania eta Errusiaren arteko gerra inperialistak errefuxiatuen gaia agenda sozialean kokatu du. II.Mundu Gerratik hona, egon den exodorik azkarrena izan da, otsailaren 24az geroztik 3.5 milioi errefuxiatuk Ukraina utzi baitute, erdiak haurrak izanik. Nazio Batuen Erakundearen (NBE) aurreikuspena da 4 milioi izan daitezkeela.

IKUSPEGI-k, Inmigrazioaren Euskal Erakundeak, EAE-ko egoeraz egindako "EAEn Nazioarteko babesa eskatu duten pertsonak 2021" txostenaren arabera, 2017. urtetik milaka kontatzen dira asilo eskaera egin duten herritarrak (sindemiak honetan ere jaitsiera eragin bazuen ere): 2019. urtean 4.827 asilo eskaera jaso ziren, inoizko kopururik altuena. Gehienak, ordea, ukatuak izan ziren: jatorri nikaraguarra zuten eskaeren %73,6a, Hondurasetik zetozenen %88,1a, Perutik etorritako %97a eta Colombiar jatorriko %98a. Beste muturrean, Venezuelatik zetorren herritarren eskaeren %97,9a onartu ziren arrazoi humanitarioak tarteko.

EAE-N ESKATURIKO ASILO ESKAEREN ERANTZUNA (% , 2020)



Iturria: Espainiako Estatuko Barne Ministerioa, INE, Ikuspegi

Emaitzei erreparatuta, Venezuelaren kasua azpimarragarria da, zenbaki hauen atzean erabaki politiko argia baitago. Izan ere, 2019. urtean Espainiar estatuko Ministerioarteko Asilo eta Babes Komisioak iradoki zuen Venezuelatik zetozen herritarrei asilo eskaerak onartzea arrazoi humanitarioak agudiatuta.


Ukranien gerraren testuinguruan, Espainiako Barne Ministerioak Ukrainatik zetozen herritarrei nazioarteko behin behineko babesa ematea erabaki zuen eta erabaki horren arabera politikak sustatzen ari dira Hego Euskal Herrian ere bai:

- EAEko instituzioek (Eusko Jaurlaritza, Aldundiek, Eudelek) konpromisoaren adierazle den Kontingentzia Plana onartu zuten. 2.000 ukrainiarretatik, 1800ri izapidetu zaie behin behineko nazioarteko babesa Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian, egindako eskaeren %90ari, hain zuzen ere (Eusko Jaurlaritza, 2022ko apirilaren 21).
- Egun berean Nafarroako Gobernuak egiten zuen estimazioaren arabera, 1346 ukrainiar iritsi dira herrialdera (618 emakume, iritsitakoen %45,91a; 607 adin txikiko, %45,09; eta 121 gizon, iritsitakoen %8,98a). Egindako eskaeretatik %68,35a izapidetu da, 920 hain zuzen ere.

Argiki esan dezakegu, migrazio politikak erabaki politikoek baldintzatzen dituztela. Zentzu horretan, politika horien norabidea proiektu politiko jakin baten aldeko neurri politikoa da, inondik inora neutrala ez dena.

Euskal Herria, arrazoi ezberdinak tarteko, migraturiko herritarren bizileku edo pasabide da. Estatistika ofizialetan agertuko ez bada ere, Irungo Harrera Herriak emaniko datuen arabera, Irun eta Hendaia arteko mugan 2021. urtean 4.602 herritar artatu zituzten (horietatik %79,46 gizonak, %16,99 emakumeak eta %3,54 haurrak).

IRUNGO HARRERA SAREAK HARTATUTAKO HERRITAR KOPURUA (2021 URTEA)



2022an kopurua nabarmen gorantz doa. Izan ere, 2022.urteko lehen hiru hilabeteetan 1600 migratzaile izan dira artatuak (horien artean %82,82a gizonak, %13,19a emakumezkoak eta %4a haurrak izan dira), 2021.urteko urteko lehen hiru hilabeteetan baino %110,52 gehiago.

IRUNGO HARRERA SAREAK HARTATUTAKO HERRITARRAK (2021/2022 ALDERAKETA)

